

## ITTXARTELA APLIKAZIOAREN ERABILPENEA

### ITTxartela aplikazioaren erabilpena

- Sartu sakatu ostean, 'Ziurtagiri-proba bat egin' aukera hautatu.
- Ordua eta data dagokion matrikularen erabiltzailea eta gakoa sartu. Datu hauek erabiltzaileak kontsulta ditzake bere historialean edo zentruko tutoreak eskura dituen datuetan
- Erabiltzailea behin frogan sartuta ez dago atzera egiterik. Aplikazioa itxi egiten baldin bada, azterketa amaitutzat emango da eta ezin izando da berriro sartu.
- Galdera guztietan ezin da:
  - Saguaren eskumako botoia erabili
  - Saguarekin ezin da objektu bat herrestan eraman
  - Klik bikoitza egin
- Hiru galdera mota daude
  - Simulaziokoak:
    - Galderak erabili beharreko bidea zehazten baldin badu (teklatura, sagua...), bide hori errespetatu behar da.
    - Galderak erabili beharreko biderik ez baldin badu zehazten, edozein bide erabil daiteke.
    - Irudi baten gainean klik eginez gero, ekintza hori ez dago desegiterik.
  - Irudidunak: Irudi bat erakusten eta test baten bidez erantzun beharreko galderak dira. Testak erantzun bakar edo anitzekoak izan daitezke.
    - Erantzun anitzeko testak baldin badira, zuzenak diren aukera guztiak hautatu behar dira galdera ontzat emateko.
  - Testak: Erantzun bakar edo anitzekoak izan daitezke:
    - Erantzun anitzeko testak baldin badira, zuzenak diren aukera guztiak hautatu behar dira galdera ontzat emateko
- Galderak ez dira datozen ordenean zertan erantzun behar.
- Galdera baten edukia ikus daiteke ez dago momentuan erantzun beharrik, galdera itxi eta geroago itzul daiteke erantzutera.
- Erabiltzaileak galdera guztiak erantzuten dituenean, aplikazioa itxi egiten da frogaren emaitza erakutsiz.
- Azterketa galdera guztiak erantzun gabe amaitu nahi baldin bada, Aplikazioaren goikaldean dagoen Bukatu botoian sakatu behar da. Aplikazioa ez baldin bada izten froga ez da ontzat emango.
- Edozein arrazoiengatik, behin behineko ziurtagiria ez baldin bada agertzen, ziurtagiri ofiziala, erabiltzaileak inskripzioa egindako orduan jarritako helbidera heldu arte itxaron behar du.
- Arazo teknikoak sortuz gero, erabiltzaileak tutoreak emandako gomendioak une oro jarraituko ditu.

## ITTxartelaren erreklamazio aplikazioaren erabilpena

- Sartu botoia sakatu ostean, 'ziurtagiri-proba bat berrikusi' aukera hautatu.
- Erabiltzailearen NAN sartu behar da.
- Pantailan erabiltzaileak egindako frogen zerrenda bat agertuko da. Froga bakoitza bi aldiz berrikusi daiteke gehienez. Bi aukera horiek agortuta, froga zerrendatik kenduko da.
- Azterketa orduan erantzun gabe utzitako galderak, ezin dira berrikuspenean ikusi.
- Galderen erraklamazioak egiteko, hortarako egokituta dagoen tokian egin behar da. Galderaren erantzun zuzena erakusten den beheko aldean.
- Erreklamazioa egiteko jarritako lekuan, dagokion galderaren erreklamazioa egin behar da. Ezin daiteke mezu batean mi galdera ezberdinen erreklamazioa egin.
- Erreklamazioak erabiltzaileak egindako ekintzetan oinarritu behar da. Ez dira onartu ondorengo erreklamazioak:
  - Klik bikoitza.
  - Saguaren eskumako botoia erabiltzen denean.
  - Sagurekin klikatu eta herrestan eraman
  - Erantzun anitzen galderetan aukera zuzen guztiak autatzen ez direnean.
- Aplikazioak frgo egiteko garaian egindako mugimendu guztiak gordetzen ditu.
- Aplikazioak erantzun zuzena erakusteko orduan, erantzuna emateko bide zehatz bat ez daukaten galderetan, teklatu bidez emandako erantzuna erakusten du.
- Gaizki erantzundako galderetan, erantzun zuzena erakutsi ostean galderaren egoera erakusten, hau da, 'Gaizki' jarriaz. Mezu honen inguruan egindako erreklamazioak ez dira onartuko.
- Berrikuspenearen bitartez egiten ez diren erraklamazioak ez dira kontutan hartuko